

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Garizumako 3. igandea

2010 Martxoak 7 (C urtea)

Patxi Otamendi

Irteera 3, 1-8a. 13-15

1 Korintiarrei 10, 1-6. 10-12

Lukas 13, 1-9

- Ongi dakigunez denetarik ematen du bizitzak: onetik eta txarretik. Batzuei ezbehar latzak gertatzen zaizkie. Zenbaitetan gure esku dagoena egin ahal dugu; bestetan nahigabeak gertatzen zaizkigu (lanik gabe geratu, gaixo, gaizki ulertuak...). Norbere merituetatik harago, patuaren eragina handia dela dirudi. Job-en liburuan eta Salmoetan hainbat aldiz agertutako keza gaur egun ere entzuten dugu: zergatik niri? Bestalde, nabaria da Jesusek inongo errurik gabe gurutzaldian jasandakoa “doakoa” izan zela. Ez zegoen horretara iristeko zergatirik. Gaur egun zenbat eta zenbatek aurkitzen dute oinazea eta herioa horretan zerikusi zuzenik izan gabe.

- Adibide tragiko bi aipatzen ditu ebanjelioak. Biak garai haietako gertakizun historikoak. Bata galilear batzuk Pilatosek bortizki jazar ondoren hil egin zituela. Badirudi galilear horiek Jerusalemgo Tenplura erromes gisa joandakoak izango zirela. Txikituak izan ostean Tenplurako opari bezala erabiliak izan ziren, animaliekin egiten zuten antzera. Ez da guretzat ezaguna sarraski haren arrazoi zehatza. Baina pentsatzekoa da Pilatosek iraultzaile itxura edo susmoa hartuko ziela. Historiagatik jakina da Pilatosek gobernari postuan egindako hamar urtetan jasan zituen altxamenduak hogeita hamabi izan zirela. Horren ondorioz, jendea gupidagabe heriotzara eramateko jarrera tinkoan ohitu zen.

Bigarrena Jerusalemgo harresiaren Siloe-ko dorrea gainean erori eta beste batzuk hilda geratu ziren. Harresiko horma ustekabean erori eta bizia galdu zutenak Jerusalemgo biztanleak ziren.

Bata bestearekin, patu txarra banatua ageri da. Bata eragindakoa, bestea suertatutakoa. Bata, kanpokoentzat galgarri, bestea etxekoentzat. Bietan hondamendiaren itxura zitalak bizitza hauskorra dela adierazten digute.

- Gertaera haiek jasan zituztenak ez zuten denborarik izan zetorkien kaltea ekiditeko. Ildo horri helduz, Jesusek azaltzen du bihotz aldaketari ekidin ezean, gure espiritu-bizitza galbide azkar eta larrian eror daitekeela.

- Bizitzako denbora mugatua badugu ere, Jesusek pazientzia eskaintzen du gaurko testuan. Tartean aipatzen duen parabolaren pikondoa –itxura onekoa- hiru urtetan pikurik eman gabe zegoela kontatzen da. Hala eta guztiz, bada itxaropena: zuhaitz agor hura landatzen zuenari aholkatzen diote erabat ebaki orde gehiago itxaron dezala. Hau da, aukera berriei lekua eman behar zaiela. Alabaina, pazientzia ere mugatua da: aukeretan erabakiak hartu behar direla, atzerapenik gabe.

Zer adierazi nahi digu hemen Lukasek pikondoaren sinboloarekin? Irakurketa zabal bati helduz uler dezakegu judutar erlijioeko agintariek eta farisearez ari dela. Hauek irakaspen ezin hobeak azaltzen dituzte, baina maitasunezko ekintzetan huts egiten dute. Horretan geratzen ote da Lukas? Ala, zentzua luzatuz, ez ote du nahi iradoki kristau elkarteko buruzagiek ere antzutasunean erortzen ari zirela, fruitu onik ematen ez zituztelako? Ala gutariko bakoitzari geure alderdi kaskarrak zuzen genitzan dei leuna egiten ote digu?

- Eta zein izan daiteke kristau baten hutsegite nabarmenena? Maitasun nahikorik ez garatzea. Hor

dago Jesusen jarraitzailearen bikaintasuna ala porrota. Hori da erlijiotasunaren balioan erabakigarri den irizpidea. Kristoren maitasunaz aritzea ala ez. Izan ere, maitasunean lantzen eta egiaztatzen da benetako fedea. Ez soilik atxikimendu erlijiosoan.